



- Aurkezpena


Kaixo guztioi!



Nire izena Xabier da eta musikagilea naiz. Mmmm... Musikagilea... Ba al dakizue zertan datza nire lana?



Pista bat...



Hemendik gutxira “Zazpilanda” ikastolan ikusiko dugu elkar. Egun horretan nire kidea, Maite, ezagutuko duzue eta ganbera musikako talde batek kontzertu pribatua preparatu digu.

Bi musikagileen pieza batzuk entzungo ditugu. Alde batetik, Juan Crisostomo de Arriagaren sorkuntzak eta, bestaldetik, Fanny Mendelssohnenak. Oraindik ez dituzue ezagutzen, ezta? Mmm... Ba hori izango da zeuen zeregina hurrengo egunerako!



